# Pribatuen Iragarkiak

## EUSKO TRENBIDEAK, S.A.

IRAGARKIA, San Mamesko (Zamudio) trenbide-pasagunearen automatizazioari buruzko lehiaketa prozedura irekiaz kontratatzeko. 19030

IRAGARKIA, Busturia-Itxasbegiko trenbide-pasagunearen automatizazioari buruzko lehiaketa prozedura irekiaz kontratatzeko. 19031

IRAGARKIA, Sukarrietako pasaguneen (desnibelean) osagarri diren lanei buruzko lehiaketa prozedura irekiaz kontratatzeko. 19033

IRAGARKIA, Sukarrietako desnibel-pasaguneak eta Busturia Itxasbegi geltokirako sarbide lanak burutzeko lehiaketa prozedura irekiaz kontratatzeko. 19035

IRAGARKIA, trenbidearen zenbait tarte ixteko lehiaketa prozedura irekiaz kontratatzeko. 19036

IRAGARKIA, tren agente eta gidari-kobratzaile lanpostuei dagozkien lan poltsak lehiaketa-oposizioaren bidez sortzeko lehiaketarako deialdiari buruzkoa. 19038

# Anuncios Particulares

## FERROCARRILES VASCOS, S.A.

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto de concurso relativo a la automatización del paso a nivel de San Mames (Zamudio). 19030

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto de concurso relativo a la automatización del paso a nivel en Busturia-Itxasbegi. 19031

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto de concurso relativo a las obras en zona marítima, complementarias a pasos a desnivel en Sukarrieta. 19033

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto de concurso relativo a la ejecución de las obras de pasos a desnivel en Sukarrieta y Accesos a la Estación de Busturia-Itxasbegi. 19035

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto de concurso relativo a diversos cerramientos de vía. 19036

ANUNCIO de la convocatoria para la constitución por el sistema de concurso oposición de las bolsas de trabajo para Agentes de Ferrocarriles y Conductores-Cobradores. 19038

# Xedapen Orokorrak

## LURRALDE ANTOLAMENTU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

### Zk-4708

199/2000 DEKRETUA, urriaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua arautuko dituena.

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseilua sortu zuen, Kontseilu hau ingurugiroaren arloan eskumena duen Sailari lotzen zaio eta aholkuak emateko izaera du. Organo honek ingurugiro-politikaren prestaketan, kontsultan eta jarraipenean gizarte eta ekonomiako interesak ordezkatzen dituzten sektoreen eta Unibertsitatearen parte-hartzea bultzatu nahi du.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

### N°-4708

DECRETO 199/2000, de 10 de octubre, por el que se regulan la composición y funcionamiento del Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, crea el Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como órgano de naturaleza consultiva adscrito al Departamento responsable del Area de Medio Ambiente, que se configura como un órgano de naturaleza consultiva para favorecer la participación de los sectores representativos de intereses económicos, sociales y de la Universidad, en la elaboración, consulta y seguimiento de la política ambiental.

1999-2002 legegintzaldirako Gobernua osatzeko alderdi politikoek izenpetu zuten Koalizio Akordioaren programan biltzen ziren konpromisoen artean gure ingurugiroa errespetatuko duen eta ekonomi jardueraren garapena, aurrerapena, bizi-kalitatea eta euskal hiritar guztien ongizatea ahalbidetuko duen garapen jasangarria bultzatzeko konpromisoa dago.

Konpromiso hori abiarazteko eta gauzatzeko beharrezkoa gertatzen da berariazko ekintza eta neurriak hartzea eta Akordioak berak berariazko ekintza eta neurri hauen artean Ingurugirorako Aholku Kontseiluaren bitartez gizartearen parte-hartzea antolatzea barne hartu zuen.

Azaldutakoa kontuan izanik, premiazkotzat hartzen da Ingurugirorako Aholku Kontseiluak legean adierazten diren ordezkaritza-esparruen artean izango duen osaera finkatzea eta zehaztea, batetik, eta Kontseiluaren funtzionamendurako oinarrizko arauak zehaztea, bestetik; izan ere, oinarrizko arau hauek aholkuak emateko organo honen funtzionamendu normala eta legeak agintzen dizkion funtzioen garapen eraginkorra ahalbidetuko duten beharrezko eta aurretiazko tresnak dira.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen azken xedapenetako bigarrenean aurreikusitakoaren arabera, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko sailburuaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzaren Aholkularitza Batzorde Juridikoari entzun eta Gobernu Kontseiluak 2000ko urriaren 10ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, ondokoa

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseilua, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak ingurugiro-politikaren prestaketan, kontsultan eta jarraipenean gizarte eta ekonomiako interesak ordezkatzen dituzten sektoreen eta Unibertsitatearen parte-hartzea bultzatzeko aholku-organo gisa eratua, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari atxiki zaio.

*2. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseiluari dagokio otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 13. artikuluan deskribatzen diren funtzioak betetzea.

*3. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseiluaren lehendakaria Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko sailburua izango da eta ondoko kontseilukideek osatuko dute Kontseilua:

a) Ingurugiroko sailburuordea, lehendakariorde gisa jardungo duena.

b) Lurralde Antolamenduko sailburuordea.

El Acuerdo de Coalición suscrito por los partidos políticos para la formación de Gobierno para la legislatura 1999-2002, incluye entre sus compromisos programáticos el impulso de un desarrollo sostenible respetuoso con nuestro medio ambiente que permita el desarrollo de la actividad económica, el progreso, la calidad de vida y el bienestar de todos los ciudadanos y ciudadanas vascas.

La puesta en marcha y materialización de dicho compromiso exige la adopción de acciones y medidas específicas, entre las que el propio Acuerdo incluye las referidas a la ordenación de la participación social en el campo del medio ambiente a través del Consejo Asesor de Medio Ambiente.

A la vista de lo expuesto se considera urgente establecer y detallar la composición del Consejo Asesor de Medio Ambiente entre los ámbitos de representación señalados en la ley y determinar sus reglas básicas de funcionamiento como instrumentos previos y necesarios que posibiliten el normal funcionamiento del órgano consultivo y el desarrollo eficaz de las funciones que la ley le encomienda.

Por todo ello, de conformidad con lo previsto en la disposición final segunda de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 10 de octubre de 2000,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* El Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, creado por la Ley 3/1998, de 27 de febrero, como órgano consultivo, para favorecer la participación de los sectores representativos de intereses económicos, sociales y de la Universidad, en la elaboración, consulta y seguimiento de la política ambiental, queda adscrito al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

*Artículo 2.–* Corresponde al Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco el ejercicio de las funciones descritas en el artículo 13 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero.

*Artículo 3.–* El Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, estará presidido por el/la Consejero/a de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, y formarán parte del mismo los siguientes vocales:

a) El/La Viceconsejero/a de Medio Ambiente que actuará como Vicepresidente/a.

b) El/La Viceconsejero/a de Ordenación del Territorio.

c) Eusko Legebiltzarraren ordezkari bat.

d) Eusko Jaurlaritzako ondoko Sailetako bakoitzeko ordezkari bat, gutxienez zuzendari maila izango duena: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoa; Industria, Merkataritza eta Turismo Sailekoa; Osasun Sailekoa; Garraio eta Herrilan Sailekoa; eta Nekazaritza eta Arrantza Sailekoa.

e) Lurralde Historiko bakoitzeko Foru Aldundien ordezkari bat.

f) Toki Administrazioen hiru ordezkari, Eudel-Euskal Udalen Elkarteak proposatuta.

g) Talde edo mugimendu herritar ekologista adierazgarrienen lau ordezkari, talde edo mugimendu ekologista hauen jardun-esparruak Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasuna hartu beharko du.

h) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeen ordezkari bat.

i) Enpresa-erakunde eta -taldeen hiru ordezkari.

j) Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan ordezkaritza handien duten sindikatuen lau ordezkari.

k) Ingurugiroarekin lotzen diren Teknologi Zentroen ordezkari bat.

l) Ingurugiroarekin lotzen diren Ikerketa Zentroen ordezkari bat.

m) Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bat.

n) Ingurugiroaren arloan ospe handia duen aditu bat.

***4. artikulua.–*** 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseiluaren kontseilukideak zuzenean izendatuko dituzte Kontseiluan ordezkaritza duten Eusko Jaurlaritzako Sailek, Herri Administrazioek eta Erakunde eta Kolektiboek.

2.– Hirugarren artikuluko lehen idatz-zatiko n) letran jasotzen den pertsona zuzenean izendatuko du Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko sailburuak.

3.– Kontseilukideek erakunde-talde bat ordezkatu behar dutenean, Kontseiluko idazkariak Euskal Autonomia Erkidego osoa hartzen duen jardun-esparrua duten erakunde guztiei deituko die, dagozkien kontseilukideak izenda ditzaten.

4.– Kontseiluan ordezkaritza duten Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta Eusko Jaurlaritzako gainerako Sailek, Herri Administrazioek eta Erakunde eta Kolektiboek dagozkien ordezkaritzetako bakoitzerako ordezkari titular bat eta, gaixo egoteagatik edo beste arrazoi justifikatu batengatik titu-

c) Una persona en representación del Parlamento Vasco.

d) Una persona con rango mínimo de Director/a en representación de cada uno de los siguientes Departamentos del Gobierno Vasco: Educación, Universidades e Investigación; Industria, Comercio y Turismo; Sanidad; Transportes y Obras Públicas; y Agricultura y Pesca.

e) Una persona en representación de la Diputación Foral de cada Territorio Histórico.

f) Tres personas en representación de las Administraciones Locales, a propuesta de la Asociación de Municipios Vascos-Eudel.

g) Cuatro personas en representación de las Asociaciones o movimientos ciudadanos más representativos de sectores ecologistas cuyo ámbito de actuación incluya la totalidad de la Comunidad Autónoma.

h) Una persona en representación de Organizaciones de consumidores y usuarios.

i) Tres personas en representación de Organizaciones y agrupaciones empresariales.

j) Cuatro personas en representación de las Organizaciones sindicales de mayor representación en el ámbito de la Comunidad Autónoma.

k) Una persona en representación de los Centros Tecnológicos relacionados con el medio ambiente.

l) Una persona en representación de los Centros de Investigación relacionados con el medio ambiente.

m) Una persona en representación de la UPV/EHU.

n) Una persona experta de reconocido prestigio en materia medioambiental.

***Artículo 4.–*** 1.– La designación de vocales del Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se efectuará directamente por los Departamentos del Gobierno Vasco, Administraciones Públicas, Entidades y Colectivos, representados en el Consejo.

2.– La designación de la persona a la que se refiere la letra n) del apartado primero del artículo tercero, se realizará directamente por el/la Consejero/a de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

3.– Cuando el/la vocal o vocales deban representar a un grupo de entidades, el/la Secretario/a del Consejo convocará a todas aquellas cuyo ámbito de actuación sea toda la Comunidad Autónoma del País Vasco para que procedan a designar el/la vocal o vocales que les corresponda.

4.– El Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente y los demás Departamentos del Gobierno Vasco, Administraciones Públicas, Entidades y Colectivos representados en el Consejo, designarán para cada una de las representaciones que les corresponden, un/una representante titular y un/una re-

larrak bertaratu ezin duenean, titularra ordezkatuko duen ordezko ordezkari bat izendatuko dituzte.

5.– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta Eusko Jaurlaritzako gainerako Sailek ordezko gisa izendatutako ordezkariak zuzendari mailakoak izango dira. Bestalde, 1 a) idatz-zatian aurreikusten den kasuan, ordezko gisa izendatutako ordezkariak Ingurugiro sailburuordeari kontseilukide gisa dagozkion funtzioak soilik beteko ditu eta ezin izango du lehendakariorde gisa jardun, ez eta lehendakaria ordezkatu ere.

*5. artikulua.–* Kontseiluak, bere lehendakariaren bitartez, aztertu beharreko gaiekin lotura duten funtzionarioak, espezialistak edo adituak bertara daitezen eskatu ahal izango du, hauen aholkua eskatzearren, eta, eztabaidatu beharreko gaiak eskatzen duenean, hirugarren artikuluko 1 d) idatz-zatian barne hartzen ez diren Eusko Jaurlaritzako Sailetako ordezkariak bertara daitezen eta artikulu horretan aipatzen diren eta Kontseiluan ordezkaritza zuzena ez duten Herri Administrazioetako eta Erakunde eta Kolektiboetako ordezkariak ere bertara daitezen eskatu ahal izango du.

*6. artikulua.–* 1.– Ingurugiro Baliabideen zuzendariak beteko ditu Kontseiluko idazkariaren funtzioak eta hitza bai baina botorik ez du izango.

2.– Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritzari dagokio Kontseiluari gaiak eta dokumentazioa prestatzeko laguntza teknikoa ematea.

*7. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseiluak gai zehatzak aztertzeko berariazko Batzordeak eratzea erabaki ahal izango du, bai eta beren izaeragatik kontseilukide guztiak bertan izatea beharrezkoa ez duten gai jakin batzuk aztertzeko Sekzioak eratzea ere.

*8. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseilua urtean hiru aldiz, gutxienez, bilduko da, Kontseiluko lehendakariak deituta, bai eta bere funtzioak betetzeko beharrezkoa denean ere.

*9. artikulua.–* 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseiluak, bere lehendakariak proposatuta, barne-funtzionamendurako arauak onartu beharko ditu.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseiluaren bileretan bertaratzeak dietak jasotzeko eskubidea eragin dezake, zerbitzuak egiteagatik kalte-ordainak jasotzeari buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren V. kapituluan ezarritakoari jarraituta.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseiluak bere barne-funtzionamendurako arauak onartzen ez dituen bitartean, Herri Administra-

presentante suplente, que sustituirá al/la titular en los casos de ausencia, enfermedad u otra causa justificada.

5.– Los/Las representantes designados/as por el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, y por el resto de los Departamentos del Gobierno Vasco, en calidad de suplentes, ostentarán el cargo de Director/a. En el supuesto previsto en el apartado 1 a), el representante designado como suplente ejercerá únicamente las funciones que le corresponden al Viceconsejero/a de Medio Ambiente como vocal del Consejo, sin actuar como Vicepresidente/a ni suplir al Presidente/a.

*Artículo 5.–* El Consejo, a través de su Presidente, podrá recabar la presencia de funcionarios/as, especialistas o expertos/as en relación con los temas a tratar, al objeto de prestar su asesoramiento, así como solicitar en su caso cuando el asunto a debatir lo requiera la presencia de representantes de los Departamentos del Gobierno Vasco, no incluidos en el artículo tercero, apartado 1 d), así como de las Administraciones Públicas, Entidades y Colectivos, mencionados en dicho artículo, que no ostenten una representación directa en el Consejo.

*Artículo 6.–* 1.– Ejercerá las funciones de Secretario/a del Consejo, con voz pero sin voto, el/la Directora/a de Recursos Ambientales.

2.– El apoyo técnico al Consejo, en lo relativo a la preparación de asuntos y documentación, corresponderá a la Dirección de Recursos Ambientales.

*Artículo 7.–* El Consejo Asesor de Medio Ambiente del País Vasco podrá acordar la constitución de Comisiones específicas para temas concretos, así como de Secciones para tratar determinados asuntos que no requieran por su naturaleza la presencia de la totalidad de miembros del Consejo.

*Artículo 8.–* El Consejo Asesor del Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se reunirá, previa convocatoria de su Presidente/a, un mínimo de tres veces al año, y cuando lo exija el cumplimiento de sus funciones.

*Artículo 9.–* 1.– El Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a propuesta de su Presidente, procederá a la aprobación de sus normas de funcionamiento interno.

2. La asistencia a las reuniones del Consejo Asesor de Medio Ambiente podrá dar derecho a la percepción de dietas, de conformidad con lo establecido en el Capítulo V del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En tanto en cuanto el Consejo Asesor del Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco no apruebe sus normas de funcionamiento interno, se re-

zioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22tik 29ra bitarteko artikuluetan biltzen diren xedapenei jarraituta zuzenduko da Kontseilua.

AZKEN XEDAPENAK.

*Lehena.*– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko sailburuari Dekretu honetan xedatzen dena garatzeko eta burutzeko beharrezko xedapenak emateko baimena ematen zaio.

*Bigarren.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko urriaren 10ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

girá por las disposiciones contenidas en los artículos 22 a 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIONES FINALES.

*Primera.*– Se autoriza al/la Consejero/a de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en el presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de octubre de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio
Vivienda y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### OSASUN SAILA

### Zk-4709

300/2000 EBAZPENA, Bizkaiko Barrualdea Eskualdeko zuzendari gerentearena, Barrualdeko Osasun Barrutiko Lehen Mailako Atentzioko Amorebietako unitateburuaren lanpostua betetzeke uzten duena.

Bizkaiko Barrualdea Eskualdeko zuzendari gerentearen urriaren 20ko 856/1999 Dekretuaren bidez, Barrualdeko Osasun Barrutiko Lehen Mailako Atentzioko Amorebietako unitateburuaren lanpostua betetzeko deialdi publikoa onartu zen.

Deialdiko 5. oinarrian ezarritakoari jarraituz, epaimahaiak lanpostua betetzeke uzteko proposamanea bidali dio Eskualdeko zuzendariari, zuzendariak erabaki lotesle baten bidez onar dezan.

Horregatik, eta Zuzendaritza Gerentzia honi indarrean den legediak ematen dizkion ahalmenak erabiliz, hau

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-4709

RESOLUCIÓN 300/2000, de la Directora Gerente de la Comarca Sanitaria de Interior de Bizkaia, por la que se declara desierta la Jefatura de Unidad de Atención Primaria de Amorebieta Área de Salud de la Comarca Interior.

Mediante Decreto 856/1999, de 20 de octubre, de la Gerente de Comarca Interior, se aprobó convocatoria pública para la designación de Jefe de Unidad de Atención Primaria de Amorebieta en la Comarca Interior, Área de Salud de Bizkaia.

Conforme a lo previsto en la base 5 de la convocatoria, ha sido elevada por el tribunal a la Directora de Comarca, para su aprobación con carácter vinculante y mediante Resolución, propuesta de declaración de desierta.

Por lo expuesto, y en virtud de las facultades legalmente atribuidas en la legislación vigente a esta Dirección Gerencia,